

Euskal Idazleen Elkartearen batzarra Zestean

Martxoaren 25ean, larunbaitz, Zestuako bainu-etxean egin zuen Euskal Idazleen Elkarteak bere urteroko batzarra. Biltzar horren inguruan beste zenbait ekintza ere buru zen. Berrogeita hamar bat idazle bildu ziren bertan eta horietatik sei, hirurogeita hamar urtetik gorakoak. Helburuetako bat, hain zuzen, 70 urtetik gorako idazleei omenaldi bat eskaintzea izan zen eta, hain zuzen, hogeita hiru ohorezko bazkide izandatu zituen elkarteak. Horien artean ezagunenak Karlos Santamaria, Ambrosi Zatarain, Iñaki Eizmendi, Agustin Zubikaraz, Mariano Izeta, Jose Antonio Loidi, Xabier Diharce, Jon Etxaide, Luis Villasante, Piarres Charriton, Federiko Krutwig, Inozentzio Olea, Martin Ugalde, Juan San Martin, Jean Haritschelhar, Gurutz Ansola, Junes Casenave eta Xabier Gereño, besteak beste. Agertu zirenak: Gurutz Ansola, Jose Garmendia, Piarres Charriton, Jose Basterretxea "Oskilaso", Anastasio Albizu, Jose Maria Etxaburu "Kamifazpi" eta Inozentzio Olea.

Omenaldiaz gain, Euskal Idaz-

leen Elkarteak, egungo euskal idazleen katalogo bat aurkeztu zuen, honako izenburua duena: Gaur egungo euskal idazleak. Liburu horretan, idazle bakoitzaren jaioterria, jaiotze data, ikasketak, lanbidea eta argitaratutako liburuak aipatzen dira, beste xehapenen artean.

Zenbait karguren aldaketa ere egin zen biltzar horretan. Horrela, bi urtez batzordekide izan ondoren Arantza Iturbe, Jose Luis Otamendi, Juan Luis Zabala eta Inazio Mujika Iraolak bere kargua utzi egin dute eta beste honako hauetxek izango dira haien postuak beteko dituztenak: Yolanda Arrieta, Andolin Eguzkitza, Patxi Zubizarreta eta Iñaki Zubeldia.

Euskal Idazleen Elkateak, Donostian duen egoitzaz gain, herrialde bakoitzak berea izan dezan du helburu. Asmo horren arabera eta gero eta idazle gehiago dagoenez, lurralde bakoitzeko egoitza bana sortzea erabaki da lana egokiago koordinatu ahal izateko.

Argitalpen arloan, aurtien Eus-

kal Idazleen Elkartek *Egats* hiru ale berri publikatuko ditu. Horietariko bi Biderako Arrastoak sailleko hirugarren eta laugarren zenbakiak izango dira. Hirugarrenak, berriz, Zestoako omenaldia izango du oinarri eta omenduei egindako elkarrizketa eta abarrekin osatuko da. Bestalde, Lubaki Bandakoek egutegia osatuko dute erreferentzia literarioak oinarri hartuta eta hau ere elkar-teak argitara emango du.

Beste zenbait xehetasun ere izan ziren mintzagai, hala nola, Kuban bizi diren euskal errefuxiatuek osatu duten liburu bildumarentzat egoitza edo irtenbide egoki bat bilatzea. Euskal Idazleen Elkartek bideak jarriko ditu bertako unibertsitateak euskal liburutegi horri leku bat egin diezaion.

G.E.